



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

ESPAZIO PUBLIKOETAN ALKOHOLAREN KONTSUMOA ARAUTZEKO ORDENANTZA

- Hasierako onarpena: 2025eko irailaren 24ko Osoko Bilkuran onartua
- Iragarkia argitaratzea: 2025eko urriaren 7ko BAOn, 191zk.
- Alegazioak: Urriaren 8tik Azaroaren 19ra



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

HITZAURREA

Durangoko Udalak, herritarren bizikidetza eta espazio publikoen erabilera egokia zaintzeko duen erantzukizuna baliatuz, beharrezkotzat jotzen du eremu horietan edari alkoholodunen kontsumoa arautzea, bereziki plazetan, parkeetan eta erabilera partekatuko beste gune batzuetan.

Leku horiek, gozamen kolektiborako eta familiarrerako sortuak, ezin dira alkohola kontsumitzeko bilgune bihurtu, horrek bizikidetzari kalte egiten diolako, bizilagunei behin eta berriz eragozpenak eragiten dizkiolako eta adingabeen, adinekoen eta gainerako ohiko erabiltzaileen ongizatea arriskuan jartzen duelako.

Ordenantza honen helburua da espazio publikoen lasaitasuna, garbitasuna eta izaera inklusiboa zaintzea, hiri-ingurune osasungarria eta herritar guztiekiko errespetuzkoa sustatuz. Horren bidez, hainbat jokabide saihestu nahi dira, errepikapena, bolumena edo inpaktua dela-eta: ondasun komunaren erabilera baketsua aldatzen dutenak, ingurunea hondatzen dutenak, zarata sortu eta bizilagunei atseden hartzea eragozten dietenak eta segurtasun-ezaren pertzepzioa eragiten dutenak.

Horri dagokionez, esan beharra dago gero eta ohikoagoak direla kaltetutako eremuetako bizilagunen kexak, eta udalaren esku-hartzea eskatzen dutela jasaten dituzten ondorio kaltegarriak desagerrarazteko edo arintzeko. Honako hauek dira aipatzen dituzten jarrera onartezinak: arratsaldetik goizaldera arte, kaleak, plazak, parkeak eta denon gozamenerako eremuak inbaditzea; zarata handiak eragitea; zikinkeria sortu eta bertan uztea: ontzi, poltsa, beira, gorozkiak, gorakoak etab.; borroak edota liskarrak.

Horregatik guztiatik, Ordenantza honen bidez, jarrera desagokiak zuzendu nahi dira, horretarako prestatuta ez dauden gune publikoetan edari alkoholodunak kontsumitzea debekatuta.

Bestalde, Ordenantza hau egiterakoan kontuan hartu dira Durangoko Udal Erregelamendu Organikoaren 95. artikuluan jasotako erregulazio onaren printzipioak: beharra, eraginkortasuna, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia.

Beharraren eta eraginkortasunaren printzipioari jarraituz, Ordenantza honek argi erantzuten dio horretarako gaituta ez dauden espazio publikoetan edari alkoholodunen kontsumoa (botiloak barne) modu argi eta eraginkorrean arautzeko eskaerari, herritarren bizikidetza babesteko, pertsona guztien eskubide eta askatasunekiko errespetua bermatzeko, eta hiri-eremuan ordena, garbitasuna eta segurtasuna zaintzeko. Arau hau tresna egokiena da bide publikoan edari alkoholodunak kontrolik gabe kontsumitzearen ondoriozko eragozpenak eta arriskuak saihesteko.

Proportzionaltasun-printzipioaren ikuspegitik, araudia espazio publikoaren erabilera arduratsua eta errespetuzkoa ziurtatzeko behar-beharrezkoak diren neurrietara mugatzen da, eta gehiegizkoak edo neurriz kanpokoak diren kargak edo murrizketak ezartzea saihesten du. Ordenantzak oreka bilatu nahi du aisialdirako eskubidearen eta ongizate orokorra bermatzeko beharraren artean, udalerriaren berezitasunak eta jokabide horiek gertatzen diren egoerak kontuan hartuta.



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

Halaber, eraginkortasun-printzipioaren arabera, arau-esparru argi bat ezartzen da, Udalaren zaintza-, kontrol- eta zehapen-lanak erraztuko dituen, baliabide publikoen kudeaketa eraginkorra sustatuz eta gizarte-gatazka minimizatuz.

Segurtasun juridikoaren printzipioari dagokionez, Ordenantza hau estatuko, autonomia-erkidegoko eta foru-aldundiko indarreko legeria errespetatuz diseinatu da, udalerrian aplikatu beharreko araubide juridikoaren koherentzia eta egonkortasuna bermatuta. Ordenantza hau egiteko legezko oinarriak honako hauek dira:

- Konstituzioko 103.1 artikulua: Administrazio Publikoak objektibotasunez zerbitzatu behar ditu interes orokorrak.
- Testu bereko 43. eta 45. artikulua: osasuna babesteko eskubidea aitortzen da. Horrez gain, gizabanakoaren garapenerako ingurune egoki batez gozatzeko eskubidea aitortzen da, eta, aldi berean, berau zaintzeko betebeharra. Horretarako, botere publikoek baliabide natural guztiak zentzuz erabiltzen direla zainduko dute, bizi-kalitatea babestu eta hobetzeko, eta aisialdirako erabilera egokia errazteko.
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 4. eta 84. artikulua: Udalek herritarren jardueran esku hartu ahal izango dute Ordenantzak eginez, erregelamenduak egiteko duten ahala baliatuta.
- Toki Korporazioen Zerbitzuen Erregelamenduaren 1. artikulua: Udalek herritarren jardueretan esku hartu ahal izango dute polizia-funtzioa betetzean, herritarren lasaitasuna, osasungarritasuna edo moralitasuna kaltetu bada edo kaltetzeko arriskua badago, haiek berreskuratze edo zaintzeko.
- Azkenik, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 139. artikulua honako hau adierazten du: «Toki-erakundeek toki-intereseko elkarbizitza-harremanak eta beren zerbitzuen, ekipamenduen, azpiegituren, instalazioen eta espazio publikoen erabilera egoki antolatze, arloan berariazko araudirik egon ezik, hurrengo artikuluetan ezarritako irizpideekin bat arau-hausteen sailkapena finkatu ahal izango dute, baita zehapenak ezarri ere, kasuan kasuko ordenantzetan jasotako eginbeharrak, debekuak zein murrizpenak ez betetzeagatik».

Bukatzeko, gardentasun-printzipioa betez, ordenantza honek kontsulta publikoko fase bat barne hartu du, informaziorako sarbidea bermatu eta arauak egiteko prozesuan herritarren parte-hartzea sustatu duena, eta arauaren zilegitasuna eta onarpen soziala indartu dituen.

Araudi honekin, Durangoko Udalak berretsi egiten du hiriko bizikidetza baketsu, seguru eta errespetuzkoaren aldeko konpromisoa, udalerrian bizi diren eta bertatik ibiltzen diren pertsona guztien bizi-kalitatea hobetzen laguntzeko.

I.TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Ordenantzaren oinarria.

Ordenantza honen bidez, honako hauek babestu nahi dira: osasun publikoa eta osasungarritasuna, ingurumenarekiko errespetua, bizilagunen atsedenerako eta lasaitasunerako eskubidea, egoera onean dagoen espazio publiko garbi batez gozatzea, eta bide publikoa modu



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

ordenatuan erabiltzea, espazio komunak gehiegikeriaz eta modu baztertzailan erabiltzea eragotzita, herritarren bizikidetza baketsua bermatzeko.

2. artikulua. Ordenantzaren xedea.

1. Ordenantza honen xedea da Durangoko gune publikoetan edari alkoholodunen kontsumoa debekatzea.

2. Durangoko gune publikoetan edari alkoholodunen kontsumoa da bide publikoan edo erabilera komuneke espazioetan pertsona batek edo talde batek egiten duena, edariak ostalaritza-establezimenduetatik edo esparru mugatu batean saltzeko eta kontsumitzeko dagokion udal-baimena edo -lizentzia duten beste batzuetatik ez datozenean, baldin eta jarduera horren ondorioz eragozpenak sor badakizkieke espazio publikoa erabiltzen duten gainerako pertsonen eta bizilagunei, lasaitasuna aztoratzen badute edo osasungarritasun-egoerak eragiten badituzte. Kontzeptu honetan sartzen da "botiloia" moduan ezagutzen duguna.

3. Kontsumo horrek larriki aztoratuko du herritarren bizikidetza, kontzentratutako pertsonen kopurua edozein dela ere, honako baldintza hauetakoren bat gertatzen bada:

a) Herritar taldeek modu masiboan edo jende-pilaketetan kontsumitzea.

b) Kontsumoa iraingarria izatea oinezkoentzat eta espazio publikoko gainerako erabiltzaileentzat.

c) Adingabeak ibiltzen diren eremuetan edo haur eta nerabeak dauden tokietan pilatzea eta kontsumitzea.

d) Balio historiko, kultural eta ondareagatik edo herritarren bizitzako gune neurgarriak izateagatik bereziki esanguratsuak diren eta babesteko arreta berezia behar duten espazio publikoetan alkohola kontsumitzea.

II. TITULUA ZEHAPEN-

ERREGIMENA

3. artikulua. Oinarri orokorrak.

1. Ordenantza hau hausteagatiko zehapenak Euskal Administrazio Publikoen Zehapen Ahalmenari buruzko martxoaren 16ko 1/2023 Legean araututako prozeduraren edo legez alda dezakeenaren arabera ezarriko dira. Xedapen hauetan jasotzen ez denari dagokionez, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean jasotako zehatzeko ahala arautzen duten printzipioak hartuko dira kontuan.

2. Ordenantza honen aurkako arau-hauste administratiboak oso larriak, larriak edo arinak izan daitezke. Sailkapen hori Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 7ko 7/1985 Legearen 140.2 artikuluan ezarritako irizpideen arabera ezartzen da.

4. artikulua. Arau-haustea.

1. Hauek dira arau-hauste oso larriak:



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

a) Agintaritza-agenteen eta botere publikoen kontrol-, ikerketa- edo zehapen-lanak oztopatzen dituzten jokabideak izatea, ordenantza hau betetzeko dituzten eskumen-eginkizunak betetzean.

b) Udal-agintariek edo bertako agenteek emandako agindu edo errekerimendu espezifikoak ez betetzea.

2. Arau-hauste larria da Durangoko gune publikoetan edari alkoholodunak kontsumitzea, baldin eta ordenantza honen 2.3 artikuluan adierazitako egoeraren bat edo batzuk gertatzen badira.

3. Arau-hauste arina da Durangoko gune publikoetan edari alkoholodunak kontsumitzea, ordenantza honen 2.2 artikuluan zehaztutakoaren arabera.

5. artikulua. Zehapenak.

Honako hauek dira Ordenantza honetan araututako arau-hausteetarako aurreikusitako zehapenak:

— Arau-hauste oso larriak: 500 eurotik 1.000 eurora arteko isuna.

— Arau-hauste larriak: 200 eurotik 500 eurora arteko isuna.

— Arau-hauste arinak: 100 eurotik 200 eurora arteko isuna.

6. artikulua. Zehapena mailakatzeko irizpideak.

1. Ordenantza honetan aurreikusitako zehapenen zenbatekoa zehazteko, proportzionaltasun-printzipioa, eta, nolanahi ere, honako mailakatze-irizpide hauek hartuko dira kontuan:

a) Arau-haustearen garrantzia.

b) Nahita egin izatea.

c) Eragindako kalteen izaera.

d) Berrerortzea eta errepikatzea.

e) Arau-haustearen gaitasun ekonomikoa.

2. Berrerortzea izango da urtebeteko epean izaera bereko arau-hauste bat baino gehiago egitea, lehenengo arau-haustea egin zenetik kontatzen hasita, administrazio-bidea amaitzen duen ebazpen bidez hala adierazi denean.

3. Artikulu honen lehenengo paragrafoan aurreikusitako jokabide zehagarrien bi inguruabar larrigarri baino gehiago gertatzen direnean, organo eskudunak aurreikusitakoa baino zehapen handiagoa ezarri ahal izango du.

4. Artikulu honen lehenengo paragrafoan aurreikusitako inguruabar larrigarriak gertatzen ez denean, eta erruduntasuna arintzeko inguruabarrak badaude, organo eskudunak aurreikusitakoa baino zehapen txikiagoa ezarri ahal izango du.

7. artikulua. Arau-hausteen erantzukizuna.



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

1. Arau-hauslea edo arau-hausleak indibidualizatzeko ikerketa-eginbide egokiak egin ondoren, arau-haustean parte hartu duten subjektuen partaidetza-maila zehaztu ezin bada, erantzukizuna solidarioa izango da.

2. Arau-hauslea adingabea denean, bere guraso, tutore edo zaintzailea izango da egindako arau-hausteen erantzule zuzen eta solidarioa, hargatik eragotzi gabe haien erantzukizun zibil subsidiarioa, baldin eta, bere aldetik doloa, errua edo zabarkeria badago, arauak ez betetze hutsa barne.

8. artikulua. Zehapenen xedea.

Ordenantza hau aplikatzearen ondorioz lortutako isun ekonomikoen zenbatekoa gazteen aisialdirako udal-programak finantzatzeko erabiliko da, oso-osorik, baita alkoholaren gehiegizko kontsumoarekin lotutako prebentzio-, sentsibilizazio- eta arreta-jardueretarako ere.

9. artikulua. Zehapenak eteteko prozedura.

Zehapenak eteteko espedienteak hasteko eta ebazteko, edota etenaldia amaitzea erabakitzeke agintari eskuduna, zehapena ezarri zuen agintaritzak bera izango da.

10. artikulua. Agintaritzak agenteek egiaztatutako gertakariak.

Ordenantza hau aplikatuz bideratzen diren zehapen-prozeduretan, agintaritzak agenteek egiaztatutako gertakariak frogatzea dute, hargatik eragotzi gabe interesdunek aurkez ditzaketen frogak.

11. artikulua. Esku-hartze espezifikoak.

Aurreko artikuluetan jasotako kasuetan, agintaritzak agenteek debekatutako edariak, ontziak edo bestelako elementuak kendu eta zuzeriaz esku hartuko dute. Atzemandako edariak berehala suntsituko dira higie- eta osasun-arrazoiengatik.

12. artikulua. Izapidearen sistematika.

Agenteek polizia-akta bat egingo dute, eta, erregistratu ondoren, Udaleko Atal Juridiko Administrazioak bidaltzeko dute aldi berean, hala badagokio, dagokion zehapen-prozedura has dezan.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Ordenantza honetan jasotako erregulazioa aldatu egingo da, bai haren xedapen arautzaileak, bai aplikazio-eremua, Euskal Autonomia Erkidegoko edo Estatuko Administrazioak bere eskumenak erabiliz emandako hierarkia-maila altuagoko arauak ezartzen duten ildo berean.

AZKEN XEDAPENA

Lehen.

Alkatetzak ahalmena du ordenantza hau behar bezala interpretatu eta aplikatzeko behar diren jarraibideak emateko.



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

Bigarrena.

Ordenantza hau indarrean sartuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean behin betiko testua osorik argitaratzen denetik 15 egun balioduneko epean, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan ezarritako moduan.